Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abenduaren 15a, osteguna — 236 — Jueves, a 15 de diciembre de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DEBAKO UDALA

*Debako Bake Epailea (titularra eta ordezkoa) hautatzeko deialdia.*

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikuluan eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz Debako Udalaren Osoko Bilkurari dagokio udalerri honetako bake-epaile titularra eta ordezkoa hautatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernuko Salari proposatzea horien izendapena.

Izendapen horretan interesa dutenek Debako Udalaren Erregistroan aurkeztuko beharko dute eskaera, hamabost egun baliodunko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskaerarekin batera zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, non adieraziko den deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eta legeak xedatutako ezgaitasun eta bateraezintasunik ez dutela.

Halaber, interesdunek hautaketa prozesuari begira egoki iritzitako merituak aurkeztu beharko dituzte. Baloratu ahal izango diren merituak dira bizilekua, curriculuma eta euskararen ezagutza.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udalbatzak eskaera aurkeztu dutenen artean bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratuko ditu, betiere ezarritako legezko betebeharrak betetzen badituzte. Eskaerarik ez badago, Udalbatzak askatasunez aukeratuko ditu bake epaile titularra eta ordezkoa, eta erabakiaren berri emango dio eskumena duen Jurisdikzio Organoari.

1. *Bake epaile izateko betekizunak.*

— Espainiako nazionalitatea izatea.

— Adinez nagusia izatea.

— Ez egotea ezgaitua, ez fisikoki eta ez psikikoki ere, funtzio judizialerako.

— Dolozko delituagatik kondenatua ez izatea, birgaitzea lortu ez den bitartean.

— Dolozko delituagatik auzipetuta edo erruztatuta ez egotea, absoluzioa lortu edo largespen autoa ematen ez den bitartean.

— Eskubide zibilak egikaritzeko ahalmen osoa izatea.

2. *Gaitasun eta bateragarritasun baldintzak.*

— Ez da titulazio berezirik eskatzen, bake epailearen betebehar eta eginkizunak betetzeko behar adinako gaitasuna izatea baizik.

— Jarduera profesionalak edo merkataritza jarduerak egiteko bateragarritasuna dute, baldin eta horiek inolako aholkularitza juridikorik eskatze ez badute, eta jarduera horren izaerak inpartzialtasuna edo independentzia ekidin edo murrizten ez badu, eta betebehar judizialak aurrera eramatea galarazte ez badu.

## AYUNTAMIENTO DE DEBA

*Convocatoria para la selección del Juez o Jueza de Paz (titular y suplente) de Deba.*

De conformidad con lo establecido en el artículo 101 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y en el artículo 4 del Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de Jueces de Paz, corresponde al Pleno del Ayuntamiento de Deba la elección del Juez o de la Jueza de Paz titular y sustituto o sustituta de este municipio, proponiendo su nombramiento a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Las personas interesadas en este nombramiento deberán presentar la correspondiente instancia en el Registro del Ayuntamiento en el plazo de quince días hábiles a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La solicitud deberá acompañarse de una declaración jurada en la que se manifieste que reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos en la presente convocatoria, y que no se encuentran incursos o incursas en ninguna de las causas de incapacidad e incompatibilidad establecidas legalmente.

Asimismo, deberán presentar cuantos méritos estimen convenientes aportar a los efectos del procedimiento de selección. Los méritos que se podrán valorar son lugar de residencia, curriculum y conocimiento del euskara.

Finalizado el período de presentación de instancias, el Pleno del Ayuntamiento elegirá el Juez o la Jueza de Paz titular y el sustituto o la sustituta de entre aquellas personas que lo hayan solicitado, siempre que cumplan los requisitos legales establecidos. En caso de no haber solicitudes, el Pleno de la Corporación los elegirá libremente con sujeción a los mismos requisitos de procedimiento, comunicando el acuerdo al Órgano Jurisdiccional competente.

1. *Requisitos para ser Juez de Paz.*

— Tener nacionalidad española.

— Ser mayor de edad.

— No estar impedido o impedida física o psíquicamente para la función judicial.

— No haber sido condenado o condenada por delito doloso, mientras no se haya obtenido la rehabilitación.

— No estar procesado o procesada, o inculpado o inculpada por delito doloso, en tanto no se haya obtenido la absolución o se haya dictado auto de sobreseimiento.

— Estar en pleno ejercicio de los derechos civiles.

2. *Condiciones de capacidad y compatibilidad.*

— No se exige titulación específica alguna, sino capacidad suficiente para el cumplimiento de las obligaciones y funciones de Juez o Jueza de Paz.

— Tienen compatibilidad para el ejercicio de actividades profesionales o mercantiles siempre que no impliquen asesoramiento jurídico de ningún tipo y que, por su naturaleza, no sean susceptibles de impedir o menoscabar su imparcialidad e independencia ni puedan interferir en el estricto cumplimiento de los deberes judiciales.

EK\CV GAO-I-2022-07643

— Ezingo dute alderdi politiko edo sindikatuetako partaide izan edo horien zerbitzura egon, ez udal hauteskundeetan edo hauteskunde legegileetan parte hartu, ezta Botere Judizialeko kide gisa inolako ekintza edo bilera publikoetan parte hartu ere, horiek izaera judiziala ez baldin badute.

Deba, 2022ko azaroaren 30a.—Gilen Garcia Boyra, alkatea.
(7643)

— No podrán pertenecer a partidos políticos o sindicatos, o tener empleo al servicio de los mismos, ni participar en las elecciones legislativas o locales, ni participar como miembros del poder judicial en ningún acto o reunión pública que no tenga carácter judicial.

Deba, a 30 de noviembre de 2022.—El alcalde, Gilen Garcia Boyra.
(7643)

EK\CV GAO-I-2022-07643

DEBAKO UDALA

**DEBAKO BAKE EPAILEA (TITULARRA ETA ORDEZKOA) HAUTATZEKO DEIALDIA**

**PARTE HARTZEKO ESKABIDEA**

| | | |
|---|---|---|
| Abizenak | | Izena |
| NAN | Sexua | Jaiotze-data |
| Helbidea (kalea, zenbakia, pisua, eta abar.) | | |
| Udalerria | Posta kodea | Lurraldea |
| Telefonoa | Posta elektronikoko helbidea | |
| Ikasketak | | |
| Jarduera edo lanbidea | | |

ESKATZEN DUT onartua izatea eta, beraz, Udalbatzak BAKE EPAILE TITULAR edo ORDEZKO gisa proposatua izatea Euskal Autonimia Erkideko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salan, eta, horretarako, **NANren fotokopia eransten dut**, eta **NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT** Bake-epaile izendatua izateko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala.

- Espainiar naziokotasuna dudala.
- Adinez nagusia naizela.
- Ez nagoela ezgaitua, ez fisikoki eta ez psikikoki ere, funtzio judizialerako
- Ez nautela dolozko delituagatik kondenatu, errehabilitazioa lortu gabe.
- Ez naizela ez prozesatua ez erruztatua dolozko delituengatik, absoluzioa lortu edo largespen-autoa ematen ez den bitartean.
- Eskubide zibil guztien jabe naizela.
- Deban biziko naizela, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Gelaren baimena izan ezik.
- Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389tik 397ra artikuluetan ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasun inongo egoeratan ez nagoela.

Deba, 2022ko ________________________ren _____a.

Sinatuta: _____________________________

Portu kalea, 1 - 20820 DEBA (Gipuzkoa) - ☎ 943192840 - info@deba.eus - www.deba.eus

EK\CV GAO-I-2022-07643

Debako Udala

**CONVOCATORIA PARA LA SELECCIÓN DE JUEZ DE PAZ (TITULAR Y SUSTITUTO) DE DEBA**

**SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN**

<table>
<tr><td colspan="3">Apellidos</td><td colspan="2">Nombre</td></tr>
<tr><td>DNI</td><td colspan="2">Sexo</td><td colspan="2">Fecha de nacimiento</td></tr>
<tr><td colspan="5">Dirección (calle, número, piso, ect.)</td></tr>
<tr><td colspan="2">Municipio</td><td colspan="2">Código postal</td><td>Provincia</td></tr>
<tr><td colspan="2">Teléfono</td><td colspan="3">Dirección de correo electrónico</td></tr>
<tr><td colspan="5">Estudios</td></tr>
<tr><td colspan="5">Actividad o profesión</td></tr>
</table>

SOLICITO ser admitido o admitida y, en consecuencia, propuesto o propuesta por la Corporación Municipal como JUEZ o JUEZA DE PAZ (TITULAR, o SUSTITUTO o SUSTITUTA) ante la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, para ello, **adjunto fotocopia del DNI**, y **DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD** que reúno todos y cada uno de los requisitos exigidos para ser nombrado Juez o Jueza de Paz.

- Tengo la nacionalidad española.
- Soy mayor de edad.
- No está impedido o impedida física o psíquicamente para la función judicial.
- No ha sido condenado o condenada por delito doloso, sin que haya obtenido la rehabilitación.
- No estoy procesado o procesada; inculpado o inculpada, por delito doloso, sin que haya obtenido la absolución o se haya dictado auto de sobreseimiento.
- Estoy en pleno ejercicio de los derechos civiles.
- Voy a residir en Deba, salvo autorización de la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
- No estoy incurso o incursa en ninguna causa de incapacidad ni de incompatibilidad o prohibición previstas en los arts. 389 a 397 de la Ley Orgánica del Poder Judicial.

Deba, a _____ de ______________________ de 2022.

Firmado: _____________________________

Portu kalea, 1 - 20820 DEBA (Gipuzkoa) - ☎ 943192840 - info@deba.eus - www.deba.eus